2019ko Urtarrila-Maiatza
Enero-Mayo 2019

Ikuskizunen egitaraua | Programa de espectáculos

# ermuantzokia





 

# Jonas Kaufmann bajo las estrellas

**A las 22:15ean / Sarrera | Entrada: 8 €**

Tenora / Tenor: **Jonas Kaufmann** Mezzosopranoa / Mezzosoprano: **Anita Rachvelishvili**
Musika-zuzendaria / Dirección musical: **Jochen Rieder** Orkestra / Orquesta: **Rundfunk Sinfonieorchester**
Iraupena / Duración: **120 min.**

*Jonas Kaufmann tenore alemaniar ezagunak musika errezitaldi bat eskaini zuen 2018ko udan Berlingo Waldbühne antzokian 20.000 ikusle baino gehiagoren aurrean izarrez beteriko gau liluragarri batean.*

*Anita Rachvelishvili mezzosopranoarekin Rundfunk-Sinfonieorchester Berlin orkestrak lagunduta eta Jochen Riederren zuzendaritzapean, Kaufmannek Vedi, Mascagni edo Leoncavalloren ariak, besteak beste, eskaini zituen, bai eta "Torna a Surriento", "Cor'ngrato", "Mattinata", "Parla più piano", "Caruso" eta "Il canto" bezalako italiar abesti herrikoiak ere,. Guztia udako gau baten xarmaz aire zabalean.*

*Gau italiar horren errepertorio zabalarekin Caruso eta Pavarotiren pausoei jarraitzen die Jonas Kaufmannek, baina, bere ahotsaren tinbre bikainarekin kutsu emanez.*

El reconocido tenor alemán Jonas Kaufmann ofreció en el verano de 2018 un recital en el Waldbühne de Berlín ante más de 20.000 espectadores, en una noche mágica bajo las estrellas.

Junto con la mezzosoprano Anita Rachvelishvili, acompañados por la Rundfunk-Sinfonieorchester Berlin y bajo la dirección de Jochen Rieder, Kaufmann interpretó arias de Verdi, Mascagni o Leoncavallo entre otros y canciones populares italianas como "Torna a Surriento", "Cor'ngrato", "Mattinata", "Parla più piano", "Caruso" y "Il canto". Todo ello bajo el encanto de una noche de verano al aire libre.

Con el amplio repertorio de esta noche italiana, Jonas Kaufmann sigue los pasos de Caruso y Pavarotti, pero establece sus propios acentos con el timbre de su brillante voz.




**URTARRILAREN 18an ENERO**

# Señora de rojo sobre fondo gris. JOSÉ SACRISTÁN

**A las 22:15ean / Sarrera / Entrada: 15€**

Egilea / Autor: **Miguel Delibes** Zuzendaria / Dirección: **José Sámano** Iraupena / Duración: **90 min.**

*Ofizioan urteak daramatzan pintore bat aspaldi ari da sormen-krisialdi bat jasaten. Bere emaztea, bere bizitzan guztia izan zena, ustekabean hil zenetik ezin izan du berriz ia ezertxo ere pintatu.*

*1975eko uda eta udazkenean kokatzen gara. Bikotearen alaba nagusia espetxean dago bere ekintza politikorengatik, eta garai horretan azalduko dira amaren gaixotasunaren lehen sintomak, alabak espetxe barruan biziko dituenak.*

*Antzerki-lan hau heriotzaranzko bide zoroan doan maitasun-istorio bat da. Ezaugarri nabariko Espainia hartan kokatzen gaitu, zoriontasuna eta bere galera aipatzen dituela, egiaren bide zuzen eta errazean barrena gizon-emakume bakoitzaren intimitate eta emozioraino iritsiz.*

Un pintor con muchos años en el oficio lleva tiempo sumido en una crisis creativa. Desde que falleció de forma imprevista su mujer, que era todo para él, prácticamente no ha podido volver a pintar.

Estamos en el verano y otoño de 1975. La hija mayor de ambos está en la cárcel por sus actividades políticas, y es en esas fechas cuando surgen los primeros síntomas de la enfermedad de su madre que la hija vivirá desde dentro de la prisión.

Esta obra teatral es el relato de una historia de amor en camino desenfrenado hacia la muerte, que nos sitúa en aquella España con rasgos inequívocos, que nos habla de la felicidad y de su pérdida, y que llega a la intimidad de cada ser humano, y a su emoción, por el camino recto y simple de la verdad.

URTARRILAREN **19**an ENERO



# The Black Note

**A las 20:00etan | Sarrera /Entrada: 10€** **Lobiano Kulturgunean**



*The Black Note musika beltz huts hutsa da, Madrilen egindakoa. Soul, Rhythm&Blues eta Gospela, funk,-a reggae-a eta soul latindarretik iragaiten delarik. Pianoak eginkizun garrantzitsua du, bertatik abiatzen baitira konposizioak, egungo soul taldeen kasuan ez bezala.*

*The Black Notek estilo berekoi eta berezkoa du, abeslari beltza barik, zuria duena. Blanca de la Plazaren ahots boteretsuak eredu guztiak hausten ditu, eta Mónica Menéndezen konposizio, piano eta abesbatzekin, egungo musika panoraman aurkitzen zaila den emakume-tandema eratzen dute.*

The Black Note es música negra en estado puro y facturada en Madrid: soul, rhythm&blues y gospel, pasando por el funk, el reggae y latin soul. El piano tiene un papel fundamental como instrumento de donde parten sus composiciones, a diferencia de las actuales bandas de soul.

The Black Note marca un estilo original y propio, donde no hay una cantante negra, sino blanca. La voz poderosa de Blanca de la Plaza rompe moldes en todos los sentidos, y unida a Mónica Menéndez en la composición, piano y coros, forman un tándem femenino difícil de encontrar en el panorama musical actual.

URTARRILAREN **25** ENERO



# Blas Cantó

**A las 22:15ean | Sarrera /Entrada: 15 €**

*Blas Cantók, 24 urteko murtziarrak 2011n ezagutu zuen ospea, bere lau taldekideekin Auryn taldea sortu zuenean. Mutilen taldeak salmenta-marka guztiak hautsi zituen Espainian, jardunean daramatzaten 6 urteetan sari ugari eskuratuz.*

*Orain Blas Cantó bakarrik ari da. Tu cara Me Suena, bere ahotsa, karisma eta moldakortasuna erakusteko aukera eman zion lehiaketa irabazi ondoren, 2018an lehenengo birari ekin dio Espainia osoan zehar.*

*Talde boteretsua, eszenaratze zaindua eta zuzeneko bikaina dira artista paregabe honen ezaugarriak. bakarrik egin duen "Complicado" lehen album honek argi erakusten du Blas Cantó etorkizun oparoko gaztea izatetik pop panoraman jada finkatutako errealitate izatera pasatu dela.*

Blas Cantó, murciano de 24 años, conoce la fama en 2011, cuando crea junto a cuatro compañeros el grupo Auryn. La boyband rompe todos los récords de ventas en España y consigue numerosos premios en los 6 años que se mantienen en activo.

Ahora Blas Cantó camina en solitario. Tras ganar el concurso Tu Cara Me Suena, en el que demostró su voz, carisma y versatilidad, en 2018 arranca su primera gira con la que recorre todo el país.

Una potente banda con una cuidada puesta en escena y un impecable directo son el sello personal de un artista único. Su primer álbum en solitario, "Complicado", es la prueba de que Blas Cantó ha pasado de ser una joven promesa a una realidad consolidada en el panorama pop.



**URTARRILAREN 26an ENERO**

**HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO INFANTIL (Euskaraz)**

## Satorjator. ENEKANTAK

**A las 17:00etan | Sarrera/Entrada: 4 €**

Zuzendaria / Dirección: **Urko Oskoz** Antzezleak / Intérpretes: **Oiane Yarza, Urko Oskoz, Aitziber Fernández, Uxue Rodríguez eta Xabi Akerreta.** Iraupena / Duración: **80 min. + 2** urte / años

*“Satorjator” ikuskizunean Eneko eta Nerea bidai magiko berri batean murgilduko dira; oraingo honetan Lur planetaren bihotzera. Lur azpian aitatxik emandako mapa bati esker altxor magiko bat bilatuko dute eta bertan lagun berriak eta aspaldiko bat topatuko dute. Beldurrari eta hango abenturei aurre egingo diete abesten eta dantzan. Gainera mugikorrekin ematen dugun gehiegizko denborari hausnarketa egingo diete gailu horien fundamentuzko erabilera bultzatuz eta jolasteko galtzen dugun orduak kritikatuz. Irriz eta musikaz betetako antzerkia da Satorjator ikuskizuna.*

Satorjator es un nuevo viaje mágico de Eneko y Nerea al corazón del planeta Lur. Bajo la Tierra y con un mapa, buscarán un tesoro mágico y de camino encontrarán viejos y nuevos amigos. Se enfrentarán al miedo cantado y bailando. Además reflexionarán sobre el abuso del móvil y el tiempo que nos roba para jugar. Un espectáculo lleno de música y humor.




**OTSAILAREN 1ean FEBRERO**

**ANTZERKIA-MUSIKA-DANTZA / TEATRO-MÚSICA-DANZA (Euskaraz / Castellano)**

## Ele! Lauxeta-Lorca. KARABANSARAI PRODUKZIOAK

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10 €**

Testuak / Textos: **Federico García Lorca, Estepan Urkiaga “Lauxeta” eta Jon Maia** Zuzendaria / Dirección: **Jon Maia** Antzezleak / Intérpretes: **Ane Salazar eta Jon Maia** Dantzariak / Bailarines-as: **Ángela Carbajo de Lera eta Arkaitz Pascuas** Musikariak / Músicos: **Gorka Hermoso eta Jesús Prieto “Pitti”** Iraupena / Duración: **85 min.**



*“Lauaxeta eta Lorca bi idazle, bi poeta ikoniko dira, bakoitza bere kulturan. Bi figura handi hauei heriotza modu berean etorri zitzaien, biak urte beteko aldean fusilatuak izan ziren diktaduraren hastapenetan. Biak gazte, biak beren bizitzaren udaberrian. Biak hil ziren askatasunaren aldeko borrokan.*

*Bata, Andaluziako lurretan jaiotako poeta errepublikarra zen; bestea, euskal lurretan jaiotako poeta abertzalea. Bi muturretako ertzak badirudite ere, inork gutxi daki bien bizitza gurutzatu egin zela.*

*“ele”k bi poeten lanaren hariaren gidaritzapean, hitzak, musika, irudiak eta antzerkia erabiliko ditu hain desberdinak dirudigun kulturek eta herriek nola poesiaren eta artearen bidez bizitzaren balore sakonetan bat egin dezakegun adierazteko*

Lorca y Lauaxeta, dos escritores, dos poetas icónicos, cada uno en su cultura. A ambos les sobrevino la muerte de la misma forma con un año de diferencia; los dos fueron fusilados a comienzos de la dictadura franquista. Los dos murieron jóvenes, luchando por la libertad.

Lorca fue poeta republicano, nacido en tierras andaluzas, Lauaxeta poeta nacionalista, nacido en tierras vascas. Aun pareciendo ser extremos alejados, sus vidas se cruzaron.

El hilo conductor de “Ele!” es la obra de los dos poetas, sus palabras, a las que añadimos música, imágenes y teatro con la intención de demostrar como culturas y pueblos aparentemente tan distantes, y en ciertos momentos enfrentados, pueden confluir en los valores básicos de las personas.

**OTSAILAREN 8 FEBRERO**

**HAURRENTZAKO MUSIKALA / MUSICAL INFANTIL (Euskaraz)**

# Go!azen 5.0. PAUSOKA

**A las 17:00 y a las 19:00etan | Sarrera/Entrada: 6€**

Egileak / Autores: **Maite Duque, Fernando Rodríguez, Itziar Gómez eta Xabier Zabaleta** Zuzendaritza / Dirección: **Jabier Elortegi eta Idoia Uranga** Antzezleak / Intérpretes: **Asier Burguete, Ainhoa Larrañaga, Beñat Iturbe, María Redondo, Iker Villa eta Itziar Urretabizkaia** Iraupena / Duración: **80 min. + 5** urte / años

*Royal School of Arts eskolara joateko ametsa bete zuen Naiak pasa den urtean. Elik eta Garik ere, hainbat gaizki ulerturen ostean, elkarrekin bukatu zuten udalekuan eta Markelek… Markelek Markel izaten jarraitu zuen.*

*Baina horiek guztiak pasa den urteko kontuak dira. Udara iritsi da berriro ere eta Basakabik ateak zabaldu ditu, Zuzen buru duela. Eta honekin batera, abentura, maitasun istorio eta lagunen arteko kontu berriak sortuko dira. Batzuetan umorez beteak, beste batzuetan berriz, negarra eragingo digutenak.*

*Aurreko urteetan bezala, antzerki obra musikala izango da hau. Telebistan ikusi ahal izango diren istorio eta gora beherak laburtu eta moldatuko dituen ikuskizuna.*

El año pasado Naia cumplió el sueño de ir a la Royal School of Arts. También Eli y Gari, tras muchos malentendidos, acabaron juntos en las colonias de verano y Markel… Bueno, Markel siguió siendo Markel.

Pero todo eso son cosas del año pasado. Otra vez llega el verano y Basakabi vuelve a abrir sus puertas, bajo la dirección de Zuzen, y con ello llegarán nuevas aventuras, historias de amor y anécdotas entre amigos/as, algunas veces con mucho humor y otras que nos harán llorar.

Como en años anteriores, se trata de una obra de teatro musical, un espectáculo que resume y adapta historias y peripecias que podrán verse en televisión.



# Royal clown. SUTEGI ANTZERKIA

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 8€

Egileak / Autoría: **Sosofi, Cardú, Pum Trá, Collarez y Tinonino** Zuzendaria / Dirección: **Juanma Rodriguez** Antzezleak / Intérpretes: **Garazi Beitia, Manuel Carrillo, Ayose Cruz, Piedi Kortazar, Giovanni Aguado y Sindy Otero.** Laguntzaileak / Colaboradoras especiales: **Irune Pérez, Pilar Medina** Iraupena / Duración: **60 min.**

*Otelo eta Julietak, Shakespearek sortutako pertsonaiak, Palma de Mallorcan bizi dute beraien maitasuna, Lady McBeth andereak –Shakespearen pertsonaia halaber - adi begiratzen diela, eta dena lotua, eta ongi lotua duela. Hamlet, Shakespearena ezustean ere, errege izateak balio duela zerbaitetarako pentsatzen du, eta Ricardo III., jaiotzatik Shakespearengan erroldatua, prest dago zentzugabekerihandizidio baterako. Eta…Puck?*

*(Piedik etortzeko dio, herrikoak garela, herri herrikoak, eta herriarentzat).*

*Antzerkian, politikan bezala, edozertaz hitz egin daiteke (ja, ja, ja).*

*- ¡Somos shakespearianos!*

*- Zu, are gehiago!*

Otelo y Julieta, naturales de Shakespeare, viven su amor del cuento en Palma de Mallorca, bajo la atenta mirada de Lady McBeth, de Shakespeare también, que tiene todo atado y bien atado. Hamlet, casualmente de Shakespeare, piensa que ser rey vale para algo, mientras Ricardo III, empadronado en Shakespeare desde que nació, está preparado para un magnidisparatecidio. Y... ¿Puck?

(Dice Piedi que vengáis, que somos del pueblo, muy del pueblo y mucho para el pueblo)

En teatro, como en política, se puede hablar de todo... (¡Ja,ja,ja!)

- Shakespearearrak gara!

- ¡Y tú más!







# Robby Peoples & The Congress

A las 20:00etan | Sarrera/Entrada: 10€

Lobiano Kulturgunean



*Robby Peoples, erroak hegoaldean dituen rock maisuak, Oxford, Mississppiko country blues tradizioetan ikasi zuen harmonika eta gitarra jotzen. Peoplesen jatorrizko musikaren berezitasuna -Whiskey Folk izengoitiz ezaguna- agertokian duen presentzia bitxia eta bere ahots urratua dira, Tom Waits eta Joe Cokerren arteko maitasunaren seme moduan deskribatu dena. Shady Deal eta The Congressekin (Ermuko bere kontzertuan lagunduko dion taldea) kostatik kostara egin dituen biren ondoren, Denverren aurkitu duPeoplesek bere musika-egoitza, uraren erritmoa Rockies daramakiola.*

El maestro del rock de raíces del sur, Robby Peoples, aprendió a tocar la armónica y la guitarra en las tradiciones country blues country de Oxford, Mississippi. La música original de Peoples, apodada Whiskey Folk, está dominada por su extraña presencia en el escenario y su voz de papel de lija, que se ha descrito como el hijo del amor de Tom Waits y Joe Cocker. Después de las giras de costa a costa con Shady Deal y The Congress, grupo que le acompaña en su concierto de Ermua, Peoples ha encontrado un hogar musical en Denver, donde lleva el ritmo del agua a los Rockies.

OTSAILAREN **22**an FEBRERO

KONTZERTUA / CONCIERTO

# Serafin Zubiri & Alboka Musika Eskolako banda.

"RECORDANDO A NINO BRAVO"

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 12 €**

*"Recordando a Nino Bravo" aspaldi desagertu baina beti gogoratua eta miretsia izan den Nino Bravoren gairik ezagunenen birsortze-ikuskizun bat da, baina honakoak badu berezitasunik: bere musika-oinarria Alboka Musika Eskolako musika-bandak, Serafin Zubiriren ahots ederrarekin batera interpretatuko duela.*

*Ikuskizuna lau ataletan egituratuta dago, Nino Bravoren argitaratutako bost diskoak kronologikoki birpasatuz. Atal bat eta bestearen artean bideoak proiektuatuko dira abeslari ezagunaren bizitza eta karrera modu atsegin eta zehatzean kontatuz.*

*Oroimin eta lehen mailako musikaz beteriko kontzertua*

Recordando a Nino Bravo es un espectáculo en el que se recrean los temas más emblemáticos del desaparecido pero siempre recordado y admirado Nino Bravo, con la particularidad de que la base musical es interpretada, junto a la hermosa voz de Serafín Zubiri, por la Banda de Música de la Escuela de Música Alboka.

El espectáculo está estructurado en cuatro bloques en los que se hace un recorrido cronológico por los cinco discos que se editaron de Nino Bravo. Entre cada bloque, se proyectan vídeos en los que se narra de forma amena y detallada la vida y carrera del reconocido cantante.

Un concierto cargado de nostalgia y de música de primer nivel.



MARTXOAREN **13**an MARZO

ANTZERKIA / TEATRO

# Lyceum club. LA DRAMÁTICA ERRANTE

**A las 20:30etan | Sarrera/Entrada: 10 €**

Zuzendaria / Directora: **María Goiricelaya** Antzezleak / Intérpretes: **Ane Pikaza, Nagore González, Olatz Gamboa, Getari Etxegarai** Iraupena / Duración: **60 min.**

*Espainiako gerra zibila hasi ondoren lau emakumek atzerritik idatziko dute. Herrimina dute eta Lyceum Club-a nola sortu zuten elkarrekin gogoratuko dute.*

*Lyceum Club Espainian, kultura eta ausardiaz, feminismoaren oinarriak ezarri zituzten emakume haientzako omenalditxo bat da. María Goiricelayak idatzi eta zuzendu du lan hau talde aitzindari honen eragile izan ziren María de Maeztu, Zenobia Camprubí, Carmen Baroja eta Pilar de Zubiaurre emakumeen irudia gogoratuz*

Tras el estallido de la Guerra Civil española cuatro mujeres escriben desde el exilio. Echan de menos su tierra y recuerdan, junto a sus compañeras, cómo juntas crearon el "Lyceum Club".

Lyceum Club es un pequeño homenaje a esas mujeres que sentaron, a golpe de cultura y valentía, las bases del feminismo en España. María Goiricelaya escribe y dirige esta pieza en la que se recuerda la figura de las impulsoras de este club pionero: María de Maeztu, Zenobia Camprubí, Carmen Baroja y Pilar de Zubiaurre.



**MARTXOAREN 15ean MARZO**

**KONTZERTUA / CONCIERTO**

# Rocio Márquez

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 12 €**

**Gitarra: Manuel Herrera** Perkusioa: **Agustín Diasera**

*Rocío Márquez Huelvan jaio zen 1985ean. Kantu-zalea txiki txikitatik, bederatzi urterekin flamenko eskoletara joaten hasi zen bere hiriko Flamenko lagunartean.*

*2007an bere karrera profesionala, azkenean, hazten hasi zen hainbat flamenko lehiaketa irabazi eta gero. 2008an bere arrakasta areagotu egin zen Cante de las Minas lehiaketa famatua irabazi eta Lampara Minera kategoria absolutuan eta beste lau kategoriatan lehenengoa geratu zenean, iraganean Miguel Póveda kantari eta konpositore ospetsuak bakarrik berdindutako lorpena.*

*2016an Berrinkuntzaren Giraldilloa lortu zuen Sevillako Flamenko Bienalean "Fahmi Alqhai violagambistarekin batera egin zuen Diálogos de viejos y nuevos sones" ikuskizun berriarekin.*

*2017an oraingoz bere azken lana dugun "Firmamento" argitaratu zuen, bere artea mundu osoan zehar erakusten jarraitzen duelarik.*

Rocío Márquez nació en Huelva en 1985. Aficionada al cante desde muy pequeña, a los nueve años comenzó a asistir a clases de flamenco en la Peña Flamenca de su ciudad.

En 2007 su carrera profesional despega definitivamente, al ganar diversos concursos de flamenco. Su éxito se ratifica en 2008 al ganar el famoso concurso del Cante de las Minas, consiguiendo el primer puesto en la categoría absoluta (Lámpara Minera) y en otras cuatro categorías. Este palmarés sólo había sido igualado con anterioridad por el hoy consagrado cantaor y compositor Miguel Poveda.

En 2016 obtuvo el Giraldillo a la innovación de la Bienal de Flamenco de Sevilla por su nuevo espectáculo junto al violagambista Fahmi Alqhai "Diálogos de viejos y nuevos sones".

En 2017 publica el que hasta el momento es su último trabajo "Firmamento", mientras continúa mostrando su arte por todo el mundo.



**MARTXOAREN 16an MARZO**

**CONCIERTO DE SOUL KONTZERTUA**

# The Sir Aligator's company

**A las 20:00etan | Sarrera/Entrada: 10€** **Lobiano Kulturgunean**



*THE SIR ALIGATOR'S COMPANY, musker jaunaren elkartea rock, pop eta soul klasikoetara hurbitzen den taldea da. Tronboi- eta tuba-soinuek erabat aldatzen dute izaera tradizionala, Michael Jackson, Tom Jones, Henri Mancini, Nino Bravo, Freddy Mercury, Joe Cocker, Elthon John, Nino Rota, Frank Sinatra, James Brown, Stevie Wonder, The Mamas & the Papas eta Lester Bowieren gaiak, besteak beste, moldatzen dituztela.*

*1985etik aurrera bide berriak arakatu dituzte tronboi- eta tuba-soinuekin entzule orotaraino iristeko.*

La compañía del señor lagarto, THE SIR ALIGATOR'S COMPANY, es un grupo que se acerca al rock, pop y soul desde su formación clásica. Los trombones y las tubas cambian por completo el rol tradicional al adaptar temas de Michael Jackson, Tom Jones, Henri Mancini, Nino Bravo, Freddy Mercury, Joe Cocker, Elthon John, Nino Rota, Frank Sinatra, James Brown, Stevie Wonder, The Mamas & the Papas y Lester Bowie entre muchos otros…

Desde 1995 experimentan nuevos caminos para llegar a todos los públicos con los trombones y las tubas.

**MARTXOAREN 22an MARZO**

**ANTZERKIA / TEATRO**

# Claudia. LA CONQUESTA DEL POL SUD

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10€**

Zuzendaria / Dirección: **Carles Fernández Giuia** Egile eta antzezleak / Autoría e intérpretes: **Claudia Victoria Poblete Hlaczik, Carles Fernández Giuia, Eugenio Swarcer**
Iraupena / Duración: **85 min.**

*CLAUDIA antzezlan dokumentala da eta bertan Claudia Pobletek lehen pertsonan kontatzen du bere bizitza. 22 urte zituenean Claudiak desagertutako gurasoen alaba zela jakin zuen eta asmatutako bizitza bizi izan zuela egiaz bereak ez ziren gurasoekin. Bere kasua eten bat izan zen Argentinan, agintari militarrek zuren zigorgabetasunaren amaieraren hasiera izan zelako.*

*Historia bada berez interesgarria, baina are interesgarriago gertatzen da oholtza gainean dakusaguna egiazko Claudia dela jakitea, bere bizitzaren historia kontatzen.*

CLAUDIA es una pieza de teatro documental, en la que Claudia Poblete narra en primera persona su historia. Claudia, con 22 años, descubrió que era hija de desaparecidos y que había vivido una vida inventada con unos padres que, en realidad, no eran los suyos. Su caso marcó un punto de inflexión en Argentina, ya que supuso el principio del fin de la impunidad de los mandos militares.

La historia ya es interesante pero aún lo es más saber que sobre el escenario vemos a la verdadera Claudia, que explica la historia de su vida.



**MARTXOAREN 29an MARZO**

# Musua. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

**A las 17:00 y a las 19:00etan**

Sarrera / Entrada: **6€**

*Mundua mundu denetik, eguzkia biraka ari da eta gu haren inguruan. Eta dei egiten dio lurrari esnatzeko, azaleko zomorroak astindu eta mozorrotzeko.*

*Mundua mundu denetik, hartzak kobazulora sartzen dira neguko solstizioetan eta kilkerrak kanpora atera udakoetan. Eta guk dantzatu eta kantatu egiten dugu negu zein uda, egin arren euria, atera arren eguzkia, apurtu arren zeruan tximista…*

*Ihauterietan, San Joanetan, Gabonetan ohitura zaharrak mantendu eta berriak sortzera jolasten dugu.*

*Munduak biraka segi dezan. Eguzkiak ez ezik, musuek ere biraka jartzen dutelako mundua.*

*Eta musuek biraka jartzen gaituztelako gu.*

*Eta zu?*

Desde que el mundo es mundo, el sol gira sobre sí mismo y nosotros/as a su alrededor, y llama a la tierra para que despierte, para que se quite los bichos de la superficie y se disfrace.

Desde que el mundo es mundo los osos se introducen en sus cuevas con el solsticio de invierno y los grillos salen del suyo con el de verano, y nosotros bailamos y cantamos en invierno y en verano, tanto si llueve, como si sale el sol, como si rompe un rayo en el cielo…

En Carnaval, en San Juan, en Navidad jugamos a mantener las viejas costumbres y crear unas nuevas, para que el mundo siga girando. Porque no sólo el sol hace girar el mundo, sino también los besos.

Y porque los besos también nos hacern girar a nosotros/as.

Y a ti?



# Depedro

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada:15 €**

*DEPEDRO Jairo Zavalak 2008an hasitako musika-proiektua da. Une hartatik gaur arte bere proiektuak eragina izan du Latinoamerika, Afrika, Mediterraneo edo Estatu Batuetako musikan, estetikan eta kulturan, dagoeneko lau disko zabal biltzen dituen musika-ibilbidean.*

*Bere musikak bost kontinenteetaraino eraman du, Estatu Batuak, Mexiko, Argentina Erdialdeko Amerika, Brasil, Australia, Zeelanda Berria, Txina, Afrika, Europa osoa, eta Erruzian zehar bira egin duela.*

*Bere diskoak 30 herri baino gehiagotan argitaratu dira. Mundu osoko eta jatorri askotako musikariekin izan ditu lankidetzak, hizkuntza ezberdinetan. Horixe da artistaren ezaugarrietako bat.*

*Ongi etorri Depedro unibertsora.*

DEPEDRO es el proyecto musical de Jairo Zavala, iniciado en 2008. Desde ese momento hasta hoy su proyecto ha volcado influencias musicales, estéticas y culturales de Latinoamérica, África, el Mediterráneo o Estados Unidos en una carrera musical que alcanza ya cuatro discos largos.

Su música le ha llevado a los cinco continentes, con giras por Estados Unidos, México, Argentina, Centro América, Brasil, Australia, Nueva Zelanda, China, África, toda Europa, Rusia…

Sus discos están publicados en más de 30 países. Sus colaboraciones son con músicos de todo el mundo en diferentes idiomas y procedentes de muchas culturas, ese es uno de los sellos de identidad del artista.

Bienvenidos al universo Depedro.



# Cinco horas con Mario. LOLA HERRERA

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 15 €**

Egilea / Autor: **Miguel Delibes** Zuzendaria / Directora: **Josefina Molina** Iraupena / Duración: **95 min.**



*1966ko martxoan gaude. Carmen Sotillori Mario, senarra, ustekabean hil zaio. Behin bisitak eta familia joan direnean, berak bakarrik gaubeilatuko du azken gauean senarraren gorpua; bakarrizketa-elkarrizketa bati ekingo dio, eta bakoitzaren izaera eta senar-emazteen arteko tira-birak jakingo ditugu.*

*Tankera eten, zorrotz, errepikakor eta topikoz beterikoaz Carmen Sotillok egun pertsona askori sinestezinak gerta dakizkiekeen gauzak, sentimenduak eta iritziak esan, adierazi eta emango ditu, baina guk fede ematen dugu bazela mintzaira hori, iritzi horiek eman ematen zirela eta Carmenen "gauza" horiek bazeudela pertsonen eguneroko bizitzan.*

Estamos en marzo de 1966. Carmen Sotillo acaba de perder a su marido Mario de forma inesperada. Una vez que las visitas y la familia se han retirado, ella sola vela durante la última noche el cadáver de su marido e inicia con él un monólogo–diálogo en el que descubrimos sus personalidades y los conflictos de su matrimonio.

Con una forma entrecortada, detallista al mínimo, reiterativa y llena de tópicos, Carmen Sotillo dice cosas, manifiesta sentimientos y emite juicios que a muchas personas hoy les pueden parecer increíbles. Pero damos fe de que ese lenguaje existía, de que esos juicios se emitían, de que esas "cosas" de Carmen estaban en la vida de todos los días.

MAIATZAREN **3**an MAYO

ANTZERKIA / TEATRO
(Euskaraz eta beste hamaika hizkuntzaz)

# Ghero. TARTEAN

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10€**

Egilea / Autor: **Patxo Telleria** Zuzendaria / Dirección: **Jokin Oregi** Antzezleak / Intérpretes: **Mikel Martínez, Patxo Telleria, Olatz Gamboa, Iñaki Maruri eta Ane Pikaza**



*3000 urtea. Euskara desagertzeko zorian dago. Azken euskaldunak izkin egin nahi dio halabeharrari.*

*Benetako misterioa ez da gure hizkuntzaren jatorria, ezbada bere biziraupen harrigarria.*

*3000 urtean euskara egongo al da?*

*Ghero, kondairen kondaira bat, euskararen biziraupen harrigarriari buruz.*

*Ghero, hizkuntza baten bizirauteko amorrua.*

*Ghero, bizirik irauteko grinari buruzko istorio bat.*

Año 3000. El euskara está a punto de desaparecer. El último euskaldun quiere burlar a un destino que parece inevitable.

El verdadero misterio no es el origen de nuestro idioma, sino su asombrosa supervivencia. ¿Seguirá existiendo el euskara en el año 3000?

Ghero, fábula de fábulas sobre la asombrosa supervivencia del euskera.

Ghero, el empeño de una lengua por seguir viva.

Ghero, una historia de lucha por la supervivencia.

MAIATZAREN **10**ean MAYO

ANTZERKIA / TEATRO

# Las princesas del Pacífico. LA ESTAMPIDA

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10€**

Egileak / Autoras: **Alicia Rodríguez, Sara Romero y José Troncoso** Zuzendaria / Dirección: **José Troncoso** Antzezleak / Intérpretes: **Alicia Rodríguez, Belén Ponce de León** Iraupena / Duración: **60 min.**

*Agustina eta Lidia (izeba-ilobak) etxeko egongelan giltzapetuta bizi diren bi izaki dira, errealitatetik hamar minutura bizi diren bi izaki, mundura irekitako leiho bakarra dutela: telebista. Han dute beraien gotorlekua minduak ez izateko, besteen ezbeharren kronikargile bihurtzen direla.*

Agustina y Lidia (tía y sobrina) son dos personajes que viven recluidos en el salón de su casa, dos seres a diez minutos de la realidad, con una única ventana al mundo: la televisión. Ahí tienen su bastión para no resultar dañadas mientras se convierten en cronistas de las desgracias ajenas.



## Sarrerak | Entradas

**Sarrerak aurretik erosteko: Abenduaren 12tik**

**BBK-ko orotako kutxazainetan** edo **www.bbk.es**

- **Lobiano Kultur Gunean**, Goienkale 10
  Astelehentik ostiralera 9:00etatik 21:00etara

**Venta anticipada de entradas: Desde el 12 de diciembre**

- **En los cajeros multiservicios** de la BBK o en **www.bbk.es**
- **En Lobiano Kultur Gunea**, Goienkale 10
  De lunes a viernes de 9:00h a 21:00h

Helbidea | Dirección

**Iparragirre z/g - Ermua - 48260 (Bizkaia) | Tfn. 943 708 700**
**www.ermua.es/ermuantzokia**
**ermuantzokia@udalermua.net**

AYUNTAMIENTO DE ERMUA
*ERMUKO UDALA*

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ermua**punto**cultural
*ermua**puntu**kulturala*

ermuantzokia.